

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 322/2026 Foru Agindua, ekainaren 2koa. Arabako notario dokumentu elektronikoko tinbredunen zehaztapen teknikoak onestea

Maiatzaren 8ko 11/2023 Legeak produktu eta zerbitzu jakin batzuetarako irispideari, kualifikazio handiko pertsonen migrazioari, zergei eta notario eta erregistro jarduketan digitalizazioari buruzko Europar Batasuneko zuzentarauen transposizioa egiten du eta Kalte nuklearrak edo material erradioaktiboek eragindako erantzukizun zibilari buruzko maiatzaren 27ko 12/2011 Legea aldatzen du. Lege horrek notario dokumentu elektronikoen bi mota berri sortzen ditu: matrize elektronikoko folioa eta hirugarrenentzako kopia baimendu elektronikoen folioa.

Dokumentu berri horiek, Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren arabera, zergaren mende daude, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen modalitatean, notario dokumentuen modalitatean, eta, beraz, zerga modalitate horretako kuota finkoaren pean.

Dokumentu berri horiek erabiltzearen ondorioz sortutako zerga banatzean eta biltzean, subjektu berri bat sortzen da, behar adinako gaitasuna duena informazioa zentralizatzeko eta, hala badagokio, etekinaren titular diren erakunde publikoei behar bezalako egozpena eta likidazioa egiteko behar diren xehetasunak emateko.

Subjektu berri hori Notariotzaren Kontseilu Nagusia da, eta dokumentu elektronikoen erabilerari dagokion zergaren etekina Arabako Foru Aldundian sartzeko prozeduran esku hartuko du, bai eta hura behar bezala egozteko behar den informazioa bidaltzeko prozeduran ere, dokumentu fisikoetarako aurreikusitako prozeduran egiten duen antzera.

Arabako Lurralde Historikoko Dirubilketa Araudi Orokorra onesten duen Arabako Diputatuaren Kontseiluaren 1994ko maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuak 29. artikuluan ezartzen du Arabako Foru Aldundiaren paper tinbreduna efektu tinbreduntzat hartzen dela, eta efektu tinbredunak Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez sortu eta aldatuko direla.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren 62. artikulua ezartzen duenez, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak, foru agindu bidez, efektu tinbredunen forma, estapanazioa, espeziea, ezau-garriak eta zenbakitzea eta horien zuzeneko tinbrea lortzeko kasuak eta prozedura ezarriko ditu.

Ondorioz, beharrezkoa da foru agindu honen bidez onestea Arabako notario folio elektronikoko tinbredunen mota berriek bete behar dituzten zehaztapen teknikoak, bai eta horiek zenbakitzeko eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren kuota finkoa ordaintzeko modua ere.

Aztertu da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako txostena.

Horrenbestez, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Notario dokumentu elektroniko tinbredunen zehaztaperen teknikoak

Onetsi egin dira matrize elektronikoko folio tinbredunen eta hirugarrenentzako kopia baimendu elektronikoko tinbredunen folioen zehaztaperen teknikoak. Zehaztaperen horiek foru agindu honen eranskinean jasotzen dira.

2. artikulua. Dirubilketa eta dirua sartzeari Arabako Foru Aldundian

Notariotzaren Kontseilu Nagusiak, hilabete bakoitzaren hogeita bosgarren eguna baino lehen eta Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoaren bidez, autolikidazio bat aurkeztu beharko du, zeinetan adieraziko baitu aurreko hilean erabili diren eta Arabako tinbre elektronikoa duten folioen kopurua, bai eta notario folioei eragiten dien eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Foru Arauan jasotzen den kuota finkoa aplikatzearen ondorioz horiek ordaindu beharreko zerga kuotaren kalkulua ere.

Zerga zorra ordaintzeko, transferentzia bat egin beharko da Arabako Foru Aldundiaren kontuan, edo haren egoitza elektronikokoan onartutako edozein ordainketa moduren bidez.

AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra eta 2026ko ekainaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 2a

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA

ERANSKINA

Notario dokumentu elektroniko tinbredunen zehaztaperen teknikoak

ISO 19005 estandarraren arabeko euskarri elektronikoa. Folio bakoitza tinbre mugikor bat da, eta honako informazio hau jasotzen du:

- Euskarria sortu den hilabetea eta urtea, kolore beltzean.
- Tinbrearen identifikatzaile bakarra, testu alfanumerikoko formatuan, kolore beltzean.
- 2D kodea, identifikatzaile bakarra duena, kolore beltzean.
- Foru tinbrearen irudia, Pantone 485 (GORRIA) kolorean edo horren atzekoan.
- Euskarriaren balioa, Arabako Foru Aldundiaren logotipoarekin, Pantone 485 (GORRIA) kolorean edo horren atzekoan.
- Tinbre zenbakia, Notarioen Elkargoaren identifikatzailea kodetuta duena, kolore beltzean.